



Irailaren 1ean zabalduko dute Usabalgo kirolgunea Tolosan

1. FASEA ▶ Igerilekuak, goiko pista, gimnastika eta fitness gelak, urbanizazioa eta aparkalekuak

EKAINEAN ▶ Futbol zelaia San Joan jaietarako ireki nahi dute udal arduradunek ▶ 2



Usabalgo kiroldegiko barruko igerilekua irailaren 1ean zabalduko dute. Argazkian, langileak lanean. IRATXE ETXEBESTE

IBARRA ▶

Gaur hasi eta igandea bitarte II. Garagardo Festa antolatu dute

Herri giroa jartzea eta diru laguntza lortzea dute helburu antolatzaileek ▶ 6



Talde antolatzaileetako ordezkariak kartelarekin. HITZA

**J.M.LULUAGA-
K.MENDIZABAL** ▶
ENTRENATZAILEAK

«Joan ohi ez direnak ere joan daitezela Berazubira»

Etzi 3. mailara igo daiteke Tolosa futbol taldea ▶ 3

ANOETA ▶

Asteburu honetan hasiko dira jaiak

Bi egitarauetako txupinazoak hilaren 25ean izango dira ▶ 4

TOLOSA ▶

Erremonte desafioa Beotibarren

Lehen aldiz izango da bihar; Altuna eta Zeberio ariko dira ▶ 5

ARESO ▶

Elusederren ura aurkitu dute ▶ 7

IKASTAROA ▶

Doako ikastaroak Tolosaldea LH Institutuan

Automatismo elektroteknikoak eta CNC Torno Programaketa ikastaroetan oraindik lekua badagoela jakinarazi dute Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutukoek (LHI). Doako ikastaroak dira. Asteleheneetik ostegunera eskaintzen dira eskolak, arratsaldez, 18:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, ikastetxean (943 65 11 47).

PILOTA ▶

Materiala aukeratu dute Olaizola II.ak eta Gonzalezek

Aimar Olaizolak eta Sebastian Gonzalezek larunbatean jokatu duten Eskuz Banakako Txapelketako finalerdietarako materiala aukeratu zuten atzo Beotibarren. 104,3 eta 103 gramoko pilotak hautatu zituen goizuettarrak, eta 103,1 eta 105,8 gramokoak azkaindarrak. 200 bat lagunek jarraitu zuten pilota aukeraketa harmailetatik. Biak ala biak ez dira aurkariak fio.



Alboetan, Olaizola II.a eta Gonzalez, atzo, Beotibarren. L. MONTES

GAZTERIA ▶

Bidaiatzerakoan kontuan hartu beharrekoak

Gaztegunek eta Udal Gazteriari antolatutako II. Hitzaldi Zikloen azken solasaldia eskainiko dute gaur Ibon Martin eta Alvaro Muñoz bidaiariak. Haiek idatzitako *La guía esencial de interrail y el viajero independiente* liburua izango dute mintzagai, eta bidaiatzerakoan kontuan hartu beharreko guztiak jorratuko dituzte. 20:00etan hasiko da saioa, Kultur Etxean.

HIRIGINTZA ▶

LEIRE MONTES

Irailaren 1ean zabalduko dute Usabal kirolgunearen lehen fasea. Hala azaldu zuten, atzo egindako prentsaurrekoan, Andoni Imaz kirol zinegotziak eta Asier Bakaikoak kirol teknikariak. Kirolzer S.L. enpresari esleitu dio Udalak zerbitzuen kudeaketa, eta kirol ekipamenduak ere adjutikatuturik daude. Egungo egoeraren laburpena egin zuten Imazek eta Bakaikoak:

Epeak. Hiru fase aurreikusi dituzte. Lehendabiziko bien epeak zehaztu dituzte; hirugarrena «definitzeko» dago. Hauxe da 1. faserako erabakitakoa:

▶ Irailaren 1ean egingo dute fase honetan bukatutakoaren irakiera.

▶ Irailaren lehen astean «ateak zabalik» izango da, «herriar guztiak kirolgune berria aurrez aurre ezagutu dezaten».

▶ 2005eko abonatuak irailaren 30a arte Usabal doan erabiltzeko aukera izango dute. Hortik aurrera, «funtzionamendu normala» izango du kirolguneak. «Orain da garaia abonatuaren kuotak berritzeko. Urtero irailaren 18a arte kobratzen zaie, baina aurtun irailaren 30a arte kobratu dietela ikusiko dute. Instalazio berriak aprobetxatu ahal izatea da horren arrazoia».

▶ Instalazio hauetaz gozatu ahal izango da kiroldegian irailaren 1etik aurrera: goiko pista, barruko igerilekuak, kanpokoak, futbolzelaia —«sanjoanetarako zabaltea da gure nahia»—, urbanizazioa, aparkalekuak —220 inguru—, sarrera, gimnastikako bi aretoak, eta fitnesssekoak. Hidromasaje eta sauna gunea, hasiera batean, bigarren fasean irekitzeko auzen, baina «urtea amaitu baino lehen eta, ahal bada, lehenengo faseetik gertu» zabalteko

Irailaren 1ean zabalduko dute kirolgunearen lehen fasea

Igerilekuak, goiko pista, gimnastikako eta fitnessseko gelak, aparkalekuak eta urbanizazioa inauguratuko dituzte; futbol zelaia sanjoanetarako ireki nahi dute



Kirolzer S.L. enpresari esleitu dio Udalak Usabal kirolgunearen zerbitzuen kudeaketa; irudian, kirolgune lanak, atzo. LEIRE MONTES

asmoa dutela adierazi dute Udal arduradunek.

2. fasea ere zehaztu da:

▶ «Guztia ondo badao», 2006ko ekainean izango da irekiera.

▶ Beheko kantxa, entrenamendu pista, tatamiak, rokadromoa, pilotarako eremu guztia, medikuntza zentroa eta elkarreentzako gelak zabalduko dituzte bigarren fase honetan.

Kudeaketa zerbitzuen adjutikazioa. Kirolzer S.L. enpresak egindako proposamena aukeratu Udalak, eta hura arduratuko da Usabalgo kudeaketa zerbitzuetaz. «Bere filosofiak kirol-

la egitera bultzatzen gaitu, eta horregatik aukeratu genuen Kirolzer S.L.», azaldu zuten atzoko agerraldian.

Kirol ekipamenduen adjudikazioak. 995.432,14 euro (165.540.365 pezeta) inbertituko ditu Udalak lehiaketara aterako kirol ekipamenduetan. «Jendeak probatu egin du tresneria, eta haiek aholkatuta egin dugu esleipena. Kalitatea bilatzea izan dugu jomuga, eta asko zaindu dugu hori». Zazpi multzotan banatu dute kirol ekipamendua:

▶ Harmailetatik eta saskiak: Ineqsport S.L. enpresari esle-

tu dio Udalak lehen multzo hau.

▶ Gortinak, sareak eta tatamiak: Ineqsport S.L.-ri.

▶ Aldageletak, eserlekuak eta armairuak: Ineqsport S.L.-ri.

▶ Pistetako eta markaketarako materiala: Osasan S.A.-ri.

▶ Aldageletako osagaiak: Argysan S.L. enpresari esleitu diote.

▶ Muskulazio tresneria gimnastika aretoetarako: Technogym S.A.-ri.

▶ Igerilekuetarako ekipamendua: Argysan S.L.-ri adjudikatu diote zazpigarren multzoa.

Prezioa. Tarifak aurrerago ja-

kinaraziko dituzte, baina batez besteko kopuruaren berri eman zuten udal ordezkariak agerraldian. Hala, bazkide txartela hilean 18 eurokoa izango da —egunean, batez beste 0,6 euro ordaintzen da—. Behin kiroldegian sartuta, «zerbitzu guztiak» erabili ahal izango ditu kirolariak, eta ez du zertan gehiago ordaindu beharrik izango: «Leku guztietan aritzeko eskubidea ematen du kuotak. Gaur egungo zerbitzuekin alderatuta, kirol instalazioak hirukoiztu egingo ditugu Usabalekin; eta ordaindu beharrekoa, luzarora, merkeagoa izango da».

KULTURA ▶

Haurrentzako antzerkia etzi, Leidor aretoan

'Misterioa gazteluan' lana eskainiko du Hiru bideak taldeak 17:00etan



Misterioa gazteluan antzezlanaren eskainiko dute etzi Leidorren. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Ekaitz gau bat, gaztelu bat, bertako parkea eta margo galeria. Ikaragarri mugitzen dira gauzak, eta mugimendu horiek margoen inpirituak iratzartzen dituzte. Gaztelu sorgindu horren misterioa argitu behar duen detektibea, hortaz, zer bihurtuko da? Horixe da Christine Penichouk zuzentzen duen Hiru bideak taldeak antzeztzen duen *Misterioa gazteluan* lanaren laburpena.

«Kolektiboki, eta adin guztietako jendearekin egina izan da sorkuntza lan hau», adierazi du Hiru bideak taldeko zuzendariak. Izan ere, moztarokak eta eskenatokian behar izaten diren «apainduak» helduek sortu dituzte; elkarrizketak, berriz, gazte talde batek egindakoak dira. Obra «Hendaia herriari aurkeztu genion lehen-dabizi, 2003ko ekainean, eta gerora etorri ziren beste emanaldiak: urte bereko abenduan Hendaia eskolatan aurkeztu genuen, eta Telethon eginkizuna eta Hopital Marin ere ezin ditugu ahanztzi». Bada haur eta heldu talde bat arduratzen da antzezlanaren interpretatzeaz.

2001ean sortu zen Hiru bideak taldea Hendaian, eta geroztik «artelana» eragitea omen da talde horren helburua. Halaxe diote, behintzat, bertako partaideek. Horretarako, «estilo eta forma ezberdinen» aldeko apustua egiten dute: antzerkia, gorpuz ariketak, moztarokak, txotxongiloak,

ipuinak, poesia, arte plastikoa eta ikus-entzunezko bideak, hain zuzen ere.

«Betidanik izan da gure interesa publiko zabal bat ezagutzeari, non haurrak, gazteak eta helduak kokatzen diren», adierazi du Christine Penichouk. Era berean, «gure jomuga dira gorpuz ariketetan, gauzen edota objektuen erabilpenean eta abotz lanetan sakontzea». Horregatik esaten dute «ikuspen eta gorpuz agerraldia» dela izan haiek eskaintzen duten ikuskizuna, eta haurrentzat ez ezik, «4 urtetik goiti» dituzten «familientzat» egindakoa ere badela.

Ordubate eskas —50 minutu— irauten duen antzezlan hori, *Misterioa gazteluan* izeneko, Leidor zinema aretoan eskainiko du etzi arratsaldean Hiru bideak taldeak, eta 3 euro ordaindu beharko dituzte ikusleek bertara sartzeko. Sarrerak salgai dira honezkerako Antonio Maria Labaien kultur etxean, eta bihar eguerdira arte izango da txartelak han erosteko aukera. Etzi leihatilan salduko dituzte, emanaldiaren aurretik.

HAUR ANTZERKIA ▶

Gaia. *Misterioa gazteluan*, haur antzerkia. Gazteentzat eta helduentzat ere egokia.
Eguna. Hilak 21, larunbata.
Ordua. 17:00.
Herria. Tolosa.
Tokia. Leidor zinema aretoa.
Salneurria. 3 euro.

MUSIKA ▶



Tonky, kitararrekin. HITZA

Tonky Blues Band taldeak kontzertua eskainiko du

Fronton kafetegian ariko dira Madrilgo musikariak, bihar, 23:30etik aurrera

I. ETXEBESTE

Tonky de la Peñak ez du aurkezpen handirik behar blueszaleen artean. Madrilgo gitarra joleak bi hamarkada daramatza bere izena duen taldearekin jolazten, eta, besteak beste, Albert Collins, Jerry Lee Lewis, Charlie Musselwhite eta Mick Taylor (Rolling Stones, John Mayall) bezalako musikariaren ondoan aritutakoa da. Esaterako, Taylorrekin bira luzea egin zuen, eta *Piedra Rodante* izeneko diskoa ere bai. Banda indartsua ekartzen du zuzeneko emanaldiarrako, eta beren kantu propioez gain, blues klasikoen bertsioak egiten dituzte.

Europako blues banden artean izen handia du egun Tonky Blues Band taldeak. Nazioarteko jaialdi handietan parte hartzen du blues klubetan sarea alde batera utzi gabe; izan ere, areto horietan garatzen dute inprobisatzeko ahalmena, eta horietan erakusten du Tonkyk gitarra jole gisa duen trebezia. Ia bi hamarkadatan zehar blues musikaren eskola garrantzitsua izan da, horrexegatik.

Bada gitarra jole madrildarrak Tolosan eskainiko du kontzertua bere taldearekin. Fronton kafetegian ariko dira bihar, 23:30etik aurrera, eta sarrera doakoa izango da, beti bezala.

JOSE MANUEL LULUAGA - KEPA MENDIZABAL ▶
TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILEAK

«Garaipenean eta igoeran pentsatu behar dugu etzi»

Tolosak aukera handia duela, baina «besteek ere euren aukera txikia» badutela esan dute entrenatzaileek

I. ETXEBESTE

Anaitasunaren kontrako partidu erabakiorra du larunbatean Tolosa CF-k Berazubini. Izan ere, etxean neurketa irabaztea lortzen badu 3. mailara igoko da Jose Manuel Luluagak eta Kepa Mendizabalek gidatzen duten taldea. Sailkapeneko bigarrena. UPV-EHU, lau puntutara dute urdinek; horien kontrako da, hain zuzen, jokatu duen Ligako azken norgehiagoka. Aukera gehienak alde dituzte tolosarrek. Horri buruz jardun da HITZA bi entrenatzaileekin. Hala ere, irabazi arte ospatzekorik ez dagoela diote, behin eta berriro.

3. mailarako igoera esku-eskura. Zer duzue esateko?

Oraindik ez dagoela ezer lortuta, eta etziko partiduan irabaztera joan behar dugula.

Aukera handia du Tolosak...

Oso handia. Gure esku dago Liga irabaztea eta 3. mailara igotzea, baina irabazten ez badugu UPV-EHUK egiten duenak ere izango du zerikusia, eta horren zain ezin gara geratu. Guk aukera handia dugu, baina besteek ere badute euren aukera txikia. Horregatik diogu larunbatean irabaztera irten behar dugula zelaira.

Prestaketa berezirik egin al duzue norgehiagoka horretarako?

Lan saioen aldetik, betiko berbera. Guretzat beste partidu bat gehiago izango da etzikoa. Hori bai, jokalariek guztie irabazteak duen garrantzia hitz egin diegu; eta garaipena azken partidurako ezin dugula utzi esan ere bai.

Nolakoa da orain taldean zuzen giroa?

Presio aldetik asko sufritu dugu denok denboraldi honetan, irabazten genuen partidu bakoitzeko beste bat irabazten zuelako UPV-EHUK. Eta orain, momentua da lasai egoteko. Jokalariek guztiak jokatzeko prest ditugu, gainera, eta irrikaz dira larunbata noiz helduko.

Gozatzeo aukera ere izango dute, beraz, zelaira irtetean.



IÑIGO ASENSIO

ZALETUAK

«Futbola ikustera joan ohi ez direnak ere joan daitezela Berazubira etzi, jokalariei behar duten indarra emateko»

Urduritasuna izan izango da, nola ez. Azken batean erabakiorra da etziko norgehiagoka Tolosa CF-rentzat, baina jokalariek urteko lana errematatzeko aukera izango dutela ere egia da, eta horrek gozamenak ekartzen du beti.

Anaitasunaren kontrako galduz gero UPV-EHU izango duzue lehiakide. Arrisku handiegia ez al da?

Futbolearen dena da zilegi, eta baliteke igoera azken partiduan erabaki behar izatea. Garaipenean eta igoeran pentsatzen jarduten badugu, ordea, ez da hori gertatuko.

Igoera gertatu gero, ospakizunik antolatuz duzue?

Festa inprobisatzea izaten da errazena, eta bi minutu nahikoa dira horretarako. Partidua irabazi arte, baina, ez daukagu horretan pentsatzerik.

Zaletuei, zer esan?

Futbola ikustera joan ohi ez direnak ere Berazubini elkartzeko oso garrantzitsua dela, jokalariei indarra emateko.

ANOETA ▶ HERRIKO JAIK

Festak hasteko irrikitan

Datorren asteazkenean txupinazoak izango badira ere, asteburu honetan hainbat ekitaldi daude

IMANOL GARCIA

Anoetako herriko jaiak hastear daude. Aurten ere bi txupinazo eta bi festa egingo dira. alde batetik festa ofizialak eta bestetik festa alternatiboak —herri borondatearen aldekoak deitu diete—. Datorren asteazkenean, hilak 25, botako badira suziriak ere, asteburu honetan badago zer eginik. Bihar bertorik gabeko antzerkia izango da frontoian. Larunbatean, goizean, VIII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketaren finalak, sega

apustua eta herriko artisten erakusketaren eta emakume anoetarren eskularen erakusketaren inaugurazioa egingo da. Gauean, Basajaun taldearen emanaldia plazan eta D.J. Bull-en emanaldia txosnagunean.

Igandean, egitarau ofizialan Dantzari Txikien Eguna ospatuko dute eta ekitaldi nagusia arratsaldean egingo den dantza emanaldia izango da. Festa alternatiboetako antolatzailerik, berriz, azoka antolatuko dute, herriko baserritarrekin,

artisauekin eta artistekin osatutakoa.

Esan bezala, asteazken arratsaldean egingo dira txupinazoak eta hurrengo igandean zer ikusi eta zer egin nahiko izango da. Haurrak izango dira protagonista nagusienetakoak, beraientzako joko ugari antolatu baitira. Kontzertuek ere izango dute bere lekua. Hala, erromeri doinuak, DJ-ek jarritako musika eta tangoak eta balsak dantzatzeko aukera izango da. Festak hasteko irrikitan daude anoetarrak.



Haurrak izango dira protagonista nagusienetakoak. G. AZKUE

EGITARAUA ▶ EGITARAU OFIZIALA

LARUNBATA, HILAK 21

09:00. VIII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketaren finalak. Udai Pilota Eskolak antolatutak.
12:30-14:00 eta 18:30-20:30. Herriko artisten erakusketa eta Anoetako emakumeek egindako eskularen erakusketa udalebean. Hasierako eguna izanik, hamaiketako eskainiko da 12:30ean. Hilaren 22, 28 eta 29an, ordutegi berdinean ikusgai izango da erakusketa.
23:00. Basajaun musika taldea plazan.

IGANDEA, HILAK 22

Dantzari Txiki Eguna.
11:00. Anoetako txistularien kalejira.
11:30 Saka ganadutegiko zezentxoak eta ponyak plazan.

17:00. Villabona, Zizurkil, Tolosa, Alegia, Irura eta Anoetako dantza taldeen emanaldia herriko plazan. Ondoren, merienda emango zaie dantzarietako frontoian.
19:30-20:30 eta 22:30etik aurrera. Erromeria Koldo Iparragirre eta bere taldearekin plazan.

ASTEAZKENA, HILAK 25

18:45. Loatzo musika eskolako txalapartarietako Kukuaren etorrera iragarriko dute plazan.
19:00. Herriko plazan txupinazoak, Kukuaren jaitziera kanpai hotsekin eta ume eta gaztekoen danborrada. Ondoren, sardina jatea eta danborradako marrazkien sari banaketa plazan. Gero, Loatzo musika eskolako trikitilari taldearen kalejira.

23:00. Kiñu musika taldea.

OSTEGUNA, HILAK 26

Korpus eta Umeen Eguna. Egun honetan barraken prezioa merkeagoa izango da.
11:00. Meza nagusia.
10:30-13:30. Ume eta gaztekoentzako parkea.
11:30. Gorritiren festibala: zezentxoak eta ponyak plazan.
16:00-18:00. Ume eta gaztekoentzako parkea.
19:00. Loatzo musika eskolako kontzertua.
22:30. Erromeria Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilarietako.

OSTIRALA, HILAK 27

11:00. Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa plazan.
16:00. Kulki joko tradizionalak plazan.

17:30. Buruhandi eta erraldoiak, herriko txistulariaren.
19:00. Ume eta helduen *playback* plazan.
22:30. Etxabe anaiak musika taldea plazan.

LARUNBATA, HILAK 28

11:00. Anoetako txistularien kalejira.
11:00. Xake txapelketa plazan.
15:30. Mus txapelketa herrikoentzako, Ateagak antolatutak.
17:30. Txokolate jatea, Ateaga elkarteak antolatutak.
18:00. Galtzaundik antolatuta, txotxongiloak umeentzat. Irrintzi taldearen *Bakartxoren zapatila*, frontoian.
19:00. Tolosaldea bailarako bakailoa saltsa berdean VII. Lehiaketa, Ateaga elkarteak antolatutak.

20:30. Herri afaria frontoian.
23:00. Kontzertua: Silykonay eta Stupenda Jones.
02:30. Disko Festa: DJ Nestor.

IGANDEA, HILAK 29

11:00. Anoetako txistularien kalejira.
12:00. Pilota partidak pilotalekuan.
12:00. Sagardo dastaketa, sagardotan egositako txorizoarekin, Ateaga elkarteak antolatutak.
12:30. Meza nagusia, Landarbaso abesbatzarekin.
13:15-14:00. Landarbaso abesbatzaren emanaldia elizan.
17:30. Herri kirolak plazan.
19:30. Villabonako Oinkari dantza taldearen *Garaiak aldatuz doaz* emanaldia plazan.
22:30. Irats musika taldea.
23:00. Zezen suzkoa, jaietako amaiera emateko. Ondoren Irats musika taldea.

EGITARAUA ▶ HERRI BORONDATEAREN ALDEKO JAIK

OSTIRALA, HILAK 20

22:30. Bertorik gabeko antzerkia herriko frontoian.

LARUNBATA, HILAK 21

10:00. Kalejira segalariekin herriko plazatik.
10:15. Sega apustua Argindegi atzeko zelaietan.
23:00. Musika emanaldia: DJ Bull.

IGANDEA, HILAK 22

10:00. Herriko baserritar, artisau eta artisten azoka. Goizean zehar: lanabesen erakusketa, musika, pintxoak...
12:00. Herri kirol erakustaldia. Ondoren, bazkaria.
19:00. Kantaldia: Aran eta Esti.

ASTEAZKENA, HILAK 25

18:30. Herri borondatearen

aldeko txupinazoak, pregoia, trikitilariak...
19:00. Kontzentrazioa, *PNV/EA: Bi urte anoetarren eskubideak urratzen. Aski da lemapean.* Ondoren, trikitipoteoa egingo da herriko trikitilarietako alaiturik.
23:00. Musika emanaldia: herriko trikitilariak. Ondoren B.A.G. dja.

OSTEGUNA, HILAK 26

Disfraz Eguna.
16:00. Ume jolasak haur eta gaztekoentzat. Ondoren marrazki lehiaketa.
17:00. Txokolate eta bizkotxoak.
18:00. *Porrotx eta Kintxo jolasean* emanaldia. Ondoren,

buruhandi eta txistulariak txosnagunea alaitzeko.
20:00. Patata tortila lehiaketa.
21:00. Saihets jatea. Afalostean, AHT-ren aurkako DVD-aren proiektzioa.
23:30. Kontzertua: Ezein herriko musika taldea.

OSTIRALA, HILAK 27

18:00. Sagardo dastaketa trikitilari eta bertsolarietako alaiturik.
20:00. Presoen aldeko kontzentrazioa.
20:30. Bertso afaria: Xabier Silveira, Jokin Uranga eta Fredi Paia.
24:00. Manifestazioa: *PNV/EA, Anoetarren eskubideak errespetatu* lelopean. Ondoren,

kontzertua: Nuuk-at eta The Solanos.

LARUNBATA, HILAK 28

Gazteen Eguna.
18:00. Gazteen kalejira.
21:00. Herri afaria.
23:30. Gazteen dantza emanaldia herriko plazan.
24:00. Kontzertua: Izeba Pilarren Ilobak eta Trapaton Circus Band.

IGANDEA, HILAK 29

17:00. Mus txapelketa.
18:30. Herriko musikarien kontzertua.
21:00. Festen amaierako afaria.
23:00. Jon Plazaola umoristaren emanaldia. Ondoren musika, herriko Disko Jartzailerik.



LIZARBI
Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak • Zurgintza orokorra
Tailakesuz eginak Zaharkinen berriztatzea
San Esteban azoia
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

VILLABONA ▶ KULTURA

Helena Orcoyenek eta Ana Iparragirrek kontzertu liriko eskainiko dute bihar Gurea antzokian

20:30ean izango da emanaldia, Juan Leatxe klarinete jolearen laguntzarekin

ERREDAKZIOA

Gurea Antzokiak Helena Orcoyen sopranoaren eta Ana Iparragirre piano jolearen kontzertu liriko eskainiko du bihar, 20:30etik aurrera, Villabonako Udal Kultura batzordeak antolatuta.

Bi emakume hauek Juan Leatxeren klarineteak lagunduko ditu pieza batean. Egitaraua-

ren barruan, Rossini, Schicchi, Arrieta, Schubert, Bela Kochs, Guridi, Caballero eta Bellini-ren hiru piezak eskainiko dituzte.

Helena Orcoyen Tolosan jaio zen 1986ean, eta Hodeitruk abesbatzan aritu da txikitatik. Egun piano eta solfeoko klaseak jasotzen ditu. Iaz, Hainbat txapelketatan hartu du parte eta Euskadiko Kantu Txapelke-

tan hirugarren postua eskuratu zuen. Valladolideko (Espainia) nazioarteko kantu ikastaroan ere aritu zen. Azken urteetan Extremaduran (Espainia), Beasainen, Ordizian, Legorretan, Tolosan eta Donostian hainbat errezitaldi eskaini ditu.

Bihar pianoan bikote izango duen Ana Iparragirre billabonatarra, berriz, Tolosan jasotzen bere lehen piano eta sol-

feoko ikasketak, Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan amaitu zituelarik. Loatzo musika eskolan irakasle lanean aritu da, bai talde instrumentalei bai abeslari lirikoei laguntzen ere. Villabonako Eresargi Txiki eta Eresargi abesbatzekin nahiz Tolosako Hodeitruk eta beste zenbait koruekin ere pianojole laguntzaile moduan aritzen da. Aukera bikaina dute,



Orcoyen eta Iparragirre. HITZA

bada, lirika gustuko dutenek bihar Villabonako kontzertu honenkin gozatzeko.

KIROLA ▶

Altuna eta Zeberioaren arteko desafioa, erremonte jaialdian

Beotibar pilotalekuan jokatu dute bihar 19:00etatik aurrera, Txinparta elkartearen 75. urteurrena dela-eta

NOELIA LATABURU

Txinparta elkarteak bere 75. urteurrenaren ospakizun ekitaldiekin darrai. Biharkoan, gainera, berrikuntzarik ekarriko dute Tolosara, izan ere lehen aldiz erremonte jaialdia antolatuko dute Beotibar pilotalekuan. Hitzordua 19:00etatik aurrera izango dute bertara hurbildu nahi duten guztientzat. Tolosako Udalak, Txinparta elkarteak eta Remonte 2000k antolatuko dute ekimena.

Hiru neurketa izango dira jokoan. Lehena, 30 tantoetara lehiatuko dena, Aizpurua II eta Gaztelu bikotea Zalakain tolo-

sarra eta Astibiai jarriko dituzte parez pare. Azkenekoan Bitoria eta Urkoa bikotea Sarasua eta Urrutiaren aurka ariko dira; hauek ere 30 tantoetara jokatu dute.

Eta arratsaldeko ekitaldi nagusia bigarren neurketa izango da: Zeberio II.a elduaindarraren eta Altuna I.a amezketarraren erremontisten arteko desafioa, hain zuzen ere. Arteari ere izango dira bertan eta sarrerak 10 euroren truke jarriko dira salgai. Sarrerak honako lekuetan aurki daitezke: Asteasuarran, Triangulo kafetegian, Fronton kafetegian, Ixkiña tabernan, Usabal sagar-

dotegian, Elduainen eta Amezetan. Gainera egunean bertan, arratsaldean, Beotibar kiroldegian erosi ahal izango dira.

Gaur, Euzkitzeren hitzaldia

Bestalde, urteko ekitaldien barruan gaur ere izango da zer ikusi. 20:00etatik aurrera Xabier Euzkitze bertsolari eta aurkezleak hitzaldia eskainiko du Txinparta elkartearen bertan. *Pilota bertsotan* izango du hizpide oraingoan eta Oier Zezarrak egingo ditu aurkezle lanak. Joxean Goikoetxea akordeoijoleak ere parte hartuko du ekimenean.



Magiaren fantasia zabalduz

ALTZO ▶ Eriz magoak kolorez jantzi zuen atzo Altzo, eguraldi ilunari irribarre bat jarritz. Horrela, fantasia eta errealitatea uztartu zituen ikuskizun paregabea eskaini zuen magoak. Herriko gaztetxo guztiak bildu zituen Ertotxen, ordubeteko iraupena izan zuen ikuskizunak. Eriz magoak haurrei umorezko eta magiazko esparruak aurkitzeko bidea irekitzea izan zuen xede. Lortu ere lortu zuen, gaztetxoek gustura jarraitu baitzituzten bere trikimailuak. NOELIA LATABURU

hitza

lagunen txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **IBARRAKO GARAGARDO FESTAN 8 afari eder** zozketatuko ditugu

laguntzaile: **hitza**

2005eko maiatzaren 19, 20, 21 eta 22a
18:00etatik aurrera zabalik

Jaki tipikoak
20 garagardo mota
+ 5 KALIMOTXO mota aukeran

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

UGARTE ▶

Ariketa fisikoen onuren gaineko hitzaldia gaur

Ariketa fisikoa onuren gaineko hitzaldia eskainiko du Estitxu Unzain Fisioterapeutak gaur 16:00-etan Ugarterko osasun zentroan.

ALEGIA ▶

Jasone Lizarazuren hitzaldia gaur

Jasone Lizarazuren eskutik Bakarkako bizitza eta elkarbizitarako aukerak hitzaldia izango da gaur 16:30ean jubilatuen tabernan Kutxak antolatuta.

BERROBI ▶

Pirritx eta Porrotx-erako sarrerak

Larunbatean Pirritx eta Porrotx-en Patata patata ikusizunerako txartelak 5 euroren truke eskura daitezke udalerekin eta Galtzaundin.

IBARRA ▶

Festa Batzordea bilduko da astelehenean

San Bartolome jaien antolaketarekin jarraituko da datorren astelehenean 19.30ean Kultur Etxean.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Gaur hasiko da II. Garagardo Festa

Gaur hasi eta igandea bitarte izango da; 19 garagardo, 5 kalimotxo mota, jatekoa eta hainbat ekitaldi izango dira

IÑIGO TERRADILLOS

«Iazko arrakastaz lagundurik», gaur, bihar, etzi eta igandean egingo da Ibarra II. Garagardo Festa. Ostegunean eta igandean 18:00etatik 24:00etara izango da zabalik, eta ostiralean eta larunbatean 18:00etatik 2:00etara.

Ibarra arraunlariak, Eneko Aritzaren lagunak kultur elkarteak, Ibarra herri ekimena, Denak FS areto futbola, Haitzetan Raju mendiko taldea, Bai Euskal Herriari, Ibarra Sokatira taldea, Ibarra Gazte Asanblada futbol 7 taldea, Ibarra Segi, Subegi elkarteak, Ibarra Zikloturista taldea eta Fidanitzak ordaintzeko taldea dira antolatzaileak eta Ibarra Udala, Hauspoa kultur elkarteak, Ibarra Gazte Asanblada, Alurr dantza taldea eta Ibarra herriko boluntarioak dira laguntzaileak.

Garagardo Festaren helburua, berriz, talde antolatzaileentzat diru laguntza lortzea eta auzolanaren bitartez herri giroa bultzatzea litzateke. Azken helburu hau azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek, «pozgarria baita inongo interesik gabe hainbeste jende lan egingo, diru guztia herri mugimendurako baita».

3 karpa izango dira. Inporta-



Pasa den urteko I. Garagardo Festako une bat. D.GIBELALDE

ziozko 19 garagardo mota datatu ahaliko dira. Orotara, 250 garagardo kupel ekarriko dira, 7.500 litro inguru. Jakiei dagokionez, Ibarra piparrak, txorixoa, euskal saltxitxak, Alemaniako saltxitxa gorri eta txuriak, ukondoa eta postre bezala euskal pastela, gazta eta irasagarria izango da. Berritasun bezala, aurten 5 kalimotxo mota ezberdin jartzea erabaki dute. Kalimotxoak, ardo ezberdinez (Nafarroa, Araba, Errioxa, gorria) eta kola ezberdinez (Pepsi, Etkola, Coca cola) nahasturik egingo dira.

Bestalde, bi zozketa egingo dira. Bata, 6 pertsonentzako aste betez autokarabana baten alokairua, Alemaniako Oktoberfest garagardo festara joateko aukerarekin eta 6 pertsonentzat Billabonako garagardo festan afaria. Hauentzako txartelak duela lau hilabetetik salgai egon dira. Beste zozketarako txartelak debaldekoak izango dira garagardo edateko pitxarrek batera emango baitira, eta bidai bat zozketatuko da.

II. Garagardo Festa gaur zabalduko dute ateak 18:00etan izango den txupinazoarekin eta zinta mozketaekin. Herriaren alde lan egin duen talde batek eta pertsonaia ezagunek egin ohi dute hau, eta aurten, Gazte Asanbladak, Gari Uranga Realeko jokalariek eta Xandilio eta Boli mendizaleek izango dute horren ardura.

II. GARAGARDO FESTA ▶ EGITARAUA

Gaur hasi eta igandea bitarte askotariko ekitaldiak izango dira Ibarra II. Garagardo Festan.

GAUR

18:00. Garagardo Festaren hasiera txupinazoa eta zinta mozketa. Ibarra gazte asanbladak, Gari Urangak, Xandilio eta Boli mendizaleek izango dute honen ardura.
21:00. Berriozarko reage musika taldearen kontzertua.

BIHAR

18:00. Txupinazoa.
22:00. Limerick taldearen kontzertua.
Atsedenean. Kalimotxo dastaketa proba egingo da.

ETZI

18:00. Txupinazoa eta ume jokoak.
23:30. Euskal makila borrokaren erakustaldia txalapartz lagundurik.

IGANDEA

18:00. Txupinazoa.
19:00. Eskualdeko aizkolarien apustua bertsolariekin: Otaño-Mujika eta Flores-Esnaola.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulategia: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Bronte, C. Korreo kalea

20 (Tolosa), 943 67 60 13

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info



Sukaldaritza erakustaldia

BERROBI ▶ XV. Kultur Astearen baitan, atzo eta herenegun sukaldaritza erakusteta izan zen. Herenegun Felix Belauntzarain, eta atzo —argazkian— Karmen Dorronsoro izan zen. Gaur 17:30ean gaztetxoek pilota partidak izango dira, 18:00etatik 20:00etara eskulan erakusteta, eta 21:30ean *¿A donde va esa loca?* antzezlan izango da ikusgai Solastokian. I.TERRADILLOS

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Beasainen etxea salgai. Deitu: 619 60 11 11.

GALDUTAKOAK

Txakurkumea. Urkizutik Montesko bitartean txakurkumea jaso zuteneko deitu 943 65 47 73 telefonora.

Betaurrekoak eta giltzak.

Alegiako osasun zentroan graduatutako betaurreko berriak eta kobeko giltzak daude. Galdutituen azal dadila bertara.

ARESO ▶ UDALA

Industrialderako ura aurkitu dute 160 bat metroko sakoneran

Geologo enpresa batek egindako ikerketen arabera egin dituzte prospekzioak eta «erreka» batekin egin dute topo

JAIONE ASTIBIA

Aresoko Eluseder industrialdea urez hornitzeko moduan izanen da aurrerantzean. Izan ere, han bertan egin berri dituzten prospekzioek beren emaitza eman dute: 160 bat metroko sakoneran, «erreka» batekin egin dute topo, Aresoko Udaletik aditza eman dutenez.

Udalaren eskariz, GEEA ikerketa geologikoak entpresak bideratu ditu ur-prospekzioak. Lur azpiko uren mapak kontsultatu, lekuko ezaugarri hidrogeologikoak aztertu eta ura non izan zitekeen aurreikusi zuten. Halaxe baieztatu zion Htzari, bertako Arana ardura-dunak: «Areso herrigunea, geologikoa Aralarreko Unitate Hidrogeologikoa deitzen dugun eremuaren gain-gainea dago, baina ura behar zen lekua justu, ez», adierazi zuen «baina bertako zorua ere ezaugarriak aztertuta ikusi genuen bi pun-

tutan ura egon zitekeela», gaineratuz. «Aurreikuspena zehatz-mehatz bete da», zioen berak. «Bietan aurkitu dugu ura. 60 metroko sakoneran batean eta bestean 160ra. Azken honen bila genbiltzan. Segundoko 20 bat litroko emaria atara zen zulaketa egin genuenean. Emari handia», esan zuen. Dena den, emari hori «ona eta jarraia den edo ez» erabakitze-ko oraindik froga batzuk egin behar direla nabarmendu nahi izan zuen.

Elusederren, ur hornidura badute egun ere, baina uda aldera, bertan dauden lantokietarako haina ez omen da izaten: «Beti erreparoz ibili behar izaten da eta esaterako bertan dagoen porlandegiak gehixea-go tiratzen badu, ez da guztientzat iristen», argitu zuen bertako alkateak. Bestalde, industri eremua handitzeko asmoak ere bai omen darabazkitez eskuartean, «baina aurrena uraren hornidura ziurtatu beharra

zegoen», atzokoan azaldu zuenez.

Arazo horri irtenbideak emateko, hasieran herriko urretik hartzeko aukera mahai gainean izan bazuten ere, Elusedererraino ura garraiatzea «oso garesti iriteten» zelako, lekuan bertan urrik bazen edo ez ikustea erabaki omen zuten, eta helburu horrekin eskatu zioten GEEA ikerketa geologikoak entpresari, ikerketa geologikoa egitea, Udaleko iturriek jakinarazi zuten.



Elusedererra igotzeko errepidea mendi lepora iristen deneko horretan, errepidearen alde banetara egin zituzten zulaketak eta irudiko honetan, 160 metroko sakoneran aurkitu dute ura. JAIONE ASTIBIA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Amorruaren aurkako zakurren txertaketa bihar

Lau hilabetez goiko txakur guztiak txertzea ez ezik, identifikatzea ere derrigorrezko da

J. ASTIBIA

Bihar ostirala, goiz eta arratsalde eta etzi, goizez bakar, zakurren txertaketa saioa egingen dute, Leitza, Amazabal auzoko suhiltzaileen egoitzan. Hala ematen du jakitera Leitzako Udalak, plazaratu berri duen bando baten bidez.

Zehazki, ostiralean, goizez, 11:00etatik 13:30era eta arratsalde, 17:00etatik 19:30era izanen omen da zakurrak txertatzeko aukera; larunbatean, berriz, 10:00etatik 12:00etara. Bertara doazenez, azindaren «jabearen nortasun agiria eta, birtxertaketa bada, zakurraren

identifikazio liburuxka» eraman behar dituzte, eta noski, «zakurra erasokorra bada, lotuta eta muturrekoa jarrita», hala dio oharrak.

Bide batez, adierazi nahi izan dute, Nafarroan «derrigorrezko» dela lau hilabetez goiko zakur guztiak «amorruaren aurka txertatzea ez ezik, mikrotxipaz identifikatzea» ere eta bi urte baino gutxiagoko epean, «birtxertatzea».

Jakin, bestalde, txertaketa bakoitzeko, 11 euro ordaindu beharko omen direla eta mikrotxiparen ezarketa bakoitzeko, berriz, 14 euro. Bi lanak egin behar izanez gero, 22,

LAGUN ONAK M.B. **hitza** **Azpeitiko Udala**

IV. Euskal Herriko Iraupen Ibilaldien Zirkuitorako Baliagarria

Point	Elevation (m)
ONAZ	
SAMIÑO	932m
PAOTXETA	
IZAZPI	967m
MANDUBI	
MURUMENDI	859 m
SANTA AGEDA	
OTXABIAGA	
TRINTXERA	
ERNIO	1075m
ZELATUN	
GAZUME	997m
ETUMETA	
ARAUNTZA	610m
LASAO	
ERLO	1026m
AZPEITIA	

Altura (m) | Jatekoak | K = Kontrolak

LUZERA_70 km. - Igotako desnibela_3.000 m.

ARAUDIA

- XVII. Ibilaldi Neurtua, Azpeitiko Lagun Onak M.B. Elkartearen izango ditu iterea eta bukaera. Irteera goizeko 03:00etan izango da.
- Izen-ematea banakakoa izango da. Ordaina 15 da. Ordaina hiru eratarik egin daiteke:
 - LAGUN ONAK M.B. Elkarteak tabeman maiatzaren 23tik aurrera. Partaideak bere txartela jasoko du.
 - LAGUN ONAK M.B. Elkarteak EUSKADIKO KUTXAn edo KUTXAn duen kontuan dirua sartzea, ekainaren 9a baino lehen.

EUSKADIKO KUTXA: 3035 0020 59 0200024501
KUTXA: 2101 0029 29 0006762926
 - Partaideak ibilaldia hasi baino ordu erdi lehenago gerturatu beharko dute txartela jasotzera. Partaideak agiria erakutsi beharko dute.
 - Egun berean, ibilaldia hasi aurretik. Partaideak ibilaldia hasi baino ordu erdi lehenago gerturatu beharko dute izena eman eta txartela jasotzera.
- Partaideak izena emanda bezala irteerako dira.

LAGUN ONAK M.B.ko telefono zenbakia 943 02 58 93 da, 18:00etatik 21:00etara.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 19a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aizolaitia, Adura, Abatub, Alegia, Alkiza, Alzo, Arnedeta, Arorta, Arzo, Balamán, Beldarza, Berastegi, Berrozi, Esluan, Herrialde, Irujo, Irujo-Labara, Lizartza, Orendain, Orera, Tostza, Vilabona, Zozakil
besteriak: Leizaldekoko Euskara Batordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza,
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

18

hotzena

12

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. II. Garagardo Festaren hasiera: txupinazoa eta zinta mozketan 18:00etan eta Berriozarko reagege musika taldearen kontzertua 21:00etan.

Tolosa. Kirikiño taldearen eguna 29an Altzon. Neska-mutilek, familiarek eta begiraleek izena emateko azken eguna: hilak 25.

Tolosa. Iturriza jubilatuta elkartearan asanblada 17:00etan elkartean bertan (Euskal Herria plaza).

Tolosa. Tolosaldeko Aurrejubilatuta, Pentsionista eta Emakume Alargunen Elkartearan batzarra Kultur Etxean 17:15ean.

HITZALDIAK

Alegia. Jasone Lizarazu: *Bakarkako bizitzan eta elkarbizitzarako aukerak.* Jubilatuen tabernan 16:30ean.

Amezketan. Estitxu Unzain fisioterapeuta: *Ariketa fisikoaren onurak eguneroko bizitzan.* Ugarteko osasun zentroan 16:00etan.

Tolosa. Xabier Euzkitze: *Pilota bertsotan.* Oier Zearra pilotariak aurkeztu eta Joxan Goikoetxeak akordeoia joko du. Txinparta elkartean 20:00etan.

Tolosa. Ibon Martin eta Alvaro Muñoz bidaiariak idatzitako *La guía esencial de interrail y el viajero independiente* liburua hitz egingo dute Kultur Etxean 20:00etan.

KULTUR ASTEAK

Berrobi. Urreburuko gazteboen pilota partidak 17:30ean; eskulan erakusketa 18:00etatik 20:00etara; eta *¿A donde va esa loca?* antzezlan 21:30ean Solastokian.

Larunbateko pailazoak ikusteko sarrerak salgai udalebean eta Galtzaundin. **Irua.** Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua 19:30ean San Miguel plazan. Argazki erakusketa Ikastolan eta egur tailak eta pinturak liburutegian.

Zizurkil. Etziko afarirako txartelak salgai Aurrerako udal bulegoetan; eta Nafarroa Oinezeko eskulturen erakusketa Atxulondo kultur etxean.



Samaniegoko ikasleak babarrunari kantari atzo Santa Luzian. J. SAIZAR



Ikasleek ere babarrun haziak landatu zituzten. J. SAIZAR

Kementsu egiten gaituena

TOLOSA ▶ Elena Arzak, herriko sukaldariak, Samaniegoko ikasleak, elkartea, kofradia eta agintariak babarruna landatu zuten atzo Santa Luzia auzoan



Juan Jose Salaberria babarrun ekoizlea hazi batzuk ematen Elena Arzak sukaldariari. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Kantuaren eta euriaren laguntzaz landatu zituzten atzo babarrunaren lehen haziak Santa Luzia auzoko

baratzetan. Horretarako elkar-tu ziren Babarrunaren Elkartekoak, Babarrunaren Kofradia-koak, Elena Arzak eta herriko sukaldari batzuk — Orue jate-txeko Angel Oruesagasti, Saus-

tako Mikel Zuaznabar eta Nicolaseko Pedro Ruiz —, Samaniego ikastetxeko ikasleak, Josemi Gomez Elosegi garapen ekonomikok, enplegu eta turismo zinetegia, Jokin Bildarratz alka-

tea eta Jexu Mari Argiñarena Gipuzkoako Foru Aldundiaren arduraduna.

Samaniegokoek Tolosako babarrunari buruzko abestia kantatu zuten sirimiripean —«indartsu eta kementsu egiten gaituena» dela esan zuten— eta ondoren lehen haziak bota zituzten. Babarrunaren Elkarteko 60 bazkideek 20 bat hektarea erabiltzen dituzte babarruna landatzeko, gehienbat Tolosaldean.

«Azken bi urteak nahiko lehorrak izan dira, baina kalitate handiko babarruna izan dugu. Aurten euri falta ez daukagu», adierazi zuen Juan Jose Salaberria Santa Luzia auzoko ekoizle eta elkarteko kideak. Landaketak «misterio handirik» ez duela erantsi zuen, «lanik handiena biltzerakoan izango da abuztuaren bukaera edo irailaren hasieratik azaroren bukaera arte, eguraldiaren arabera, bainak eskuz jasotzen direlako, helduta daudenean, eta horrek lan handia ematen duelako», azaldu zuen Salaberriak.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Alaitz Zabala (Alegia).

Gaur 2 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zorientzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!